



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 8koa Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin-behineko lanpostuak.

Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, bigarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2023ko abenduaren 1a),

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitarata ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitarata ematea Ebazpen honen II. wranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitarata ematea Ebazpen honen III. Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden ohiko behin-behineko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Laugarren artikulua.- Argitarata ematea Ebazpen honen IV. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden singularreko behin-behineko lanpostuak.

Bostgarren artikulua.- Interesatuak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitarata eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**